

EKALME komunikatu ofiziala

2022ko maiatzaren 27a. Larrialdien eta Emergentzien Nazioarteko Eguna

Larrialdien eta Emergentzien nazioarteko eguna da gaur.

Gaur, herrialde osoan, lankide asko atera gara gure zentroetako sarrerara data hori ospatzeko. Hemen gaude bilduta Euskadiko larrialdi eta emargentzietako osasun-profesionalak, gure biztanleriarekiko talde-ahaleginaren, ausardiaren, bokazioaren, konpromisoaren eta dedikazioaren adibide. Populazio horrek, egunero gure arreta eskatzen duenak eta **espezialitate propiorik ez dugula ez dakienak**, eta baldin badaki, jakin nahiko du zergatik eskatzen dugun behin eta berriz espezialitate hau.

Espainiako Larrialdietako eta Emergentzietako zerbitzuek **urtean 27 milioi pertsona baino gehiago** artatzen ditugu, osasun-sistemaren benetako segurtasun-balbula gara.

Pandemiak eragindako Osasun Publikoaren krisiak nabarmenagoa egin du osasun-sistema publikoen garrantzia eta sistema horiek indartzeko beharra. Baina **Espainiako Osasun Sistema indartzea ezinezkoa da larrialdietako eta emergentzietako sistemak zaindu gabe, eta Larrialdietako eta Emergentzietako Medikuntzako berezko espezialitatea eman gabe.**

Larrialdietako eta emergentzietako zerbitzuak osatzen ditugunok **boluntarismoaren** eta bakoitzaren sakrifizio partikularraren ondorio den prestakuntza dugun profesionalak gara, eta **gure denbora eta baliabideak prestakuntza arautu eta homogeneorik** gabe gure kontura prestatzeko erabiltzea erabaki dugu. Gaur egun, Larrialdietako eta Emergentzietako Zerbitzuen barruan **benetako berdintasuna eta bikaintasuna** lortzeko lan egitea eskatzen dugu, eta, horretarako, Larrialdietako eta Emergentzietako Medikuntza (LEM)espezialitatea ofizialki sortu behar da.

Gaur gure **leloa** eta aurtengoa dira: **“guk zaintzen zaitugu, mesedez zaindu gaitzazu”**. Lelo honen bidez, guztion arreta erakarri nahi dugu, gure kolektiboaren egoeraren errealitatea ezagut

dezazuen: erabateko dedikazioa, herritarrei 24/7/365 arreta emateko etengabeko sakrifizioa eta gu guztion boluntarismoa, **bide ofizialetik existitzen ez den prestakuntza lortzeagatik.**

Gure espezialitatea aitortuta dago Europa osoan eta munduko 100 herrialde baino gehiagotan. Espainian ez daude arlo zibilean. Larrialdietako eta emergentzietako medikuntzan jarduteko asmoa duen **Medikuntzako edo Erizaintzako ikasle batek, prestakuntza amaitzean, ezin du espezialitate hori aukeratu BAME eta BAE plazak lortzeko.**

Gaur, gure zerbitzuen zeregin erabakigarria gogoratzeko eguna da, baina baita **etorkizunera** begiratzeko eguna ere. Larrialdietako eta emergentzietako zerbitzurik onenak eraiki nahi ditugu, gure herritarrentzako **kalitatearen eta segurtasunaren** adibide gisa. Zerbitzu **egituratuak behar ditugu, uniformeak, plantilla egonkorrekin eta prestakuntza arautuarekin, jarraitutasuna bermatzeko.**

Beharrezkoa eta premiazkoa da espezialitatea sortzea. Ezin da gehiago atzeratu, gure zerbitzuen etorkizuna dago jokoan eta gure herritarren segurtasunak hala eskatzen du eta merezi du.

Osasun Ministerioari larrialdietako espezialitate bat eskatzen diogu ORAIN, "zure segurtasuna gure espezialitatea delako". Eta halaxe eskatzen diegu titularrari eta Gobernuoko presidente Pedro Sánchez jaunari.

Eskerrik asko

